


noaia

**Artzabalgo plaza
berritzeko
akordioa**

**Errautsen Parkea:
Heriotzaren
ondorengoa
ulertzeko beste
modu bat**



hitzartu



**“Hartu hitza,
hitza har dezagun,
iritzia eman dezagun”**

Kenia



943 373 613

IRTEERA MAIATZEAN

Noaok gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.



Ondo pasa
GABONETAN!

Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA ETA OSASUN ZENTROA

GABON
HAUETAN
OPARITU
OSASUNA!



943 53 92 66

Puntapax 6B, behea ezk. - USURBIL

Gabonetako berezitasunak



Otar-Goxo

E l i k a g a i a k

PROBA ITZAZU GURE ARKUME ERREA, TXERRIKUMEA, KAPOIA, TXahal eta ZAHAR AZPIZUNAK, TXULETA...



HARATEGIA - URDAITEGIA- FRUTADENDA

Zubiaurrenea, 2 • ☎ 943 36 55 81 • 20170 Usurbil

Hirikide elkarteak kide
diren familientzat...



Albiste iruditzen

Artzabalgo plaza, berritzea

Artzabalgo plaza berritzeko hitzarmena sinatu dute bertako bizilagunek eta Usurbilgo Udalak. Modu honetan, urte luzez katramilatua egon den azua konpondu eta hastera doaz berritze lanak, plazako komertzioen eskariari kasu eginez. Lanok uda ostean bideratzea galdegin baitzuten.

Ezinbestean burutu beharreko obrak ziren honakoak. "Usurbilgo Udalak beharrezkoa ikusi du plazako zoladura konpontzea, oso egoera txarrean baitago baldosa. Halaber, lan horiek baliatuko dira, inpermeabilizazioa berritzeko, berme epea iraungita duelako. Udalak obra guztia amaitu artean bere gain hartuko ditu gastu guztiak, baita inpermeabilizazio gastua ere. Lanak amaitutakoan, bizilagunek Usurbilgo Udalarituzuliko diote aurreratutako dirua, eta bi fasetan ordaintzeko aukera izango dute", ohararazi dute Udaletik.

Lanok 267.000 euroko kostua eragingo



"Udalak beharrezkoa ikusi du plazako zoladura konpontzea, oso egoera txarrean baitago baldosa".

dute Udalak berri eman duenez, "bi urteetan ordainduko du". 2018ko udal aurrekontuetako 150.000 euro zereginotara bideratuko dituzte, gainerakoa 2019an ordainduko du Udalak. Inpermeabiliza-

zio kostua aldiz, Puntapax kaleko 10, 12, 14 eta 16ko bizilagunek bere gain hartuko dute; ia 64.000 euro guztira. Hala adostu dute bizilagunen lehendakariak eta Udalak sinatu duten hitzarmenean.

Laburrean

Hurrengo NOAUA!, urtarrilaren 12an

Hurrengo bi asteetan ez da NOAUA!rik izango. 2018ko lehen astekaria urtarrilaren 12an argitaratuko dugu. Ohar edo zorrion agurrik baldin baduzue, urtarrilaren 8a baino lehen helarazi: erredakzioa@noaua.eus / 943 360 321.

Gripearen aurkako txertoa

Osakidetzak urrian abian jarritako gripearen aurkako txertaketa kanpaina amaitzean da. Abenduaren 23ra arteko epea finkatua dute. Txertoa hartzeko eskatu hitzordua anbulatorioan edo 943 362 013 telefono zenbakira deituta.

Odola emateko deialdi berria: urtarrilak 8

Abenduaren 8an ospatu zuten odol emateko egun handia. Lanean jarraitzeko asmo sendoa dute eta dagoeneko hitzordu berri bat ipini dute: urtarrilaren 8a astelehena, 18:00etatik 20:30era anbulatorioan.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendurako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordintzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria:

Erroitiz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

María Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon
Etxabe, Alazne Begiristain, Denis
Elortza, Pello Aranburu, Xabier
Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-
nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen
Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta
Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Imanol Ubeda

Umeak, helduak eta rolak

Xune ilobak bost urte beteko ditu laster. Igan-dean, bisitan joan nintzaie. Hotza eta euria kalean, ezin parkera atera. Asper-asper eginda topatu nuen gizaria. Jolaserako gogoz zen. Gurasoak aski ikusiak ditu, bere anaia txikiegia da oraindik eta erdi pittal zegoen gainera. Total, osaba zela igandeko nobedadea eta, hortaz, jolaserako hautagai egokiena.

Joan gara bere gelara eta makillaje estutzea atera du. Nonbait horixe da une hone-tan bere jolas-izarra. “Printzesa bat bezala margotuko zaitut, bale?”. Behin etorriko naiz bisitan, eta ezin ba ezetz

esan. Hasi zait masailak arrosa kolorez margotzen. Hau urarekin azkar batean ezabatuko al da, nire artean marmarrean, baina txintxo-demonio plantan.

Orain ezkerrekoa, orain esku-bikoa. Margotzen ari dela etorri da galdera: “nire gelako lñigok badakizu zer esaten duen?”.

- Ba ez, Xune. Zer dio lagun horrek?

“Mutilei ez zaiela aurpegia margotu behar”.

Joño. Lau urte baino ez dituzte umemoko hauek eta hasi dira jada horrelako aurreiritziekin? Onartu behar dut harritu egin ninduela ilobaren galderak (guraso zaretanok akaso mila bider toreatu behar izan

duzue antzeko egoerarekin, barka, beraz planteatu dudana *demodé* dagoela iruditzen ba-zaizue).

Ez nuen uste rolak hain garaiz partitzen zirenik. Ez dakit gurasoen asuntua ote den, eskolatik datorrien ala gutako askok ‘natural’ gisa ezartzen ditugun portaeren ondorio ote den. Izango du denetik zerbait.

Dena den, gure aurrekoak baino aurrerakoiak garela uste dugu. Eta pentsatzen hasita, eguneroko martxan eta detaile txiki askotan ikusten da nola errepikatzen ditugun estereotipo asko eta asko. Eta errepikapenaren errepikapenez, transmititu ere halaxe trans-

mititzen ditugula. Ia oharkabean. ‘Natural-natural’.

“Ba bihar, lagun hori gelan ikusten duzunean, esaiozu igandean masailak margotu zenizkiola osabari”, halaxe erantzun nion ilobari.

Beste jostailu batzuekin entretenitu ginen ondoren. Berandutzen hasi zenean, iloben etxetik ateratzear nintzela “masailak margotuta dituzu”, anaiak irribarrez. Ordurako ahaztuta nuen. “Beno, berdin dio”, erantzun nion. Autorako bidea presaka egin nuen, ordea. Deskuidan ezagunen batekin topo eginez gero, lotsagarri gera ez nedin.

Luis Aranalde | Garazi Lizaso Manterola | **Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

Ika-mika

Mari Domingi eta Olentzero maiteak

Gutun hau idazten dizue-dan lehena da. Izan ere, hemendik hilabete eskasera egingo dut urtebete. Eskutitz hau Picassenteko kartzelatik bidaltzen dizuet, Usurbildik 595 kilometrotara dago. Espero dut datorren urtean Euskal Herri-tik bidaltzea, ahal izanez gero, etxetik. Ez naiz luzatuko eta nire opari eta nahien zerrendari ekingo diot:

Lehenik eta behin, amatxorekin ez ezik aiatxorekin ere egon nahi dudala esan behar dizuet. Amatxok oso ongi zaintzen nau, baina aiatxorekin ere jolastu nahi dut. Zoragarria litzateke hirurok batera lo egitea, oherakoan aita ere kantatzea, bien musu goxoak jasotzea “ondo lo egin, txiki” eta “egun on” bakoitzarekin edota amak ipuina kontatu bitartean

aitak antzezte. Primeran mol-datuko ginatete! Horregatik, batera egon gaitezen nahi dut, inortxok bana ez gaitzan.

Amona ere maitagarria da, hain da goxoa... Maite ditut bere laztanak. Paseo itzelak ematen ditugu elkarrekin eta bera noiz etorriko zain egoten naiz “apapa” joateko. Hala ere, askotan, ama kezkatuta nabarmentzen dut, izan ere, ia 1.200 kilometro egin behar izaten dituzte gure senide eta lagunek gu ikusteko. Tarteko kilometro anker eta arriskutsu horiek ezabatzea eskatzen dizuet.

Kontatu didate haur-eskolan eta ikastolan laguntxo usurbildar mordoa dudala. Oraindik ez ditut ezagutzen. Askok gustatuko litzaidake urtebetetze festa edo merienda beraiekin ospatzea.

Bai, kandela bakarreko tarta (gure gurasoek putz eginez itzali eta jango luketena) eurekin partekatu nahi dut.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna ere ikusi nahi nuke, zuzenean. Pupu, Lore, aitona Manolo... den-dena besarkatu nahi ditut. Amatxok kantatzen dizkit beraien kantu batzuk eta aiatxo ere ez da atzean geratzen. Dantza egin nahi dut nire laguntxoekin!

Zin dagizuet txintxo-txintxo portatu naizela eta uste dut merezi ditudala eskatutakoak. Azken finean, aita eta ama, une oro, alboan izatea eskatzen dizuet. Etxetik gertuago egotea; horrela, amona gehiagotan etorriko litzateke eta “apapa” horietako batean, nire laguntxoekin, ikuskizuna ikusi eta

Marimototsen musua jasoko nuke! A zer nolako zirrara!

Olentzero zure astoari janaria eta ura utziko dizkiot indarrak berreskuratzeko, Euskal Herri-tik honaino ez baitago distantzia makala... Mari Domingi, zuri eta Olentzerori turroi pixka bat gordeko dizuet. Usurbildarrei ere eskerrak eman nahi dizkiet, guzti-guztiei, jakin badakidalako herrian nahi gaituztela eta euren aletxoak jartzeko prest daudela. Ez direla gutaz ahazten eta kantuan ateratzen gaituztela, postalak bidaltzen dizkigutela eta... zoragarriak direla. Bene-benetan eskerrik asko! Muxu potolo bana!

Xua

Usurbilen Nahi Ditugu

Oroigarria

Pablo gogoan



U surbildik begiratzen bada, distira berezia duen izar berri bat jaio da zeruan. Izar hori zu zara Pablo. Berezko distira izan duzu beti, bai lurlean baita orain zeruan ere. Zure bizitza laburrean ezagutu zaituen pertsona bakoitzaren onena aterarazten jakin duzu. Beti pozik. Bizitza maite zenuen eta beti erakutsi zenuen zoriotsu izateko gau-

za handirik ez dela behar.

Gu, zeure gurasoak, zu eza-gutzeko, elkarrekin hazteko, eta hainbat une on eta txar partekatzeke, hain intentsitate handiz bizitzeko ohore eta luxu handia izan dugu. Ez dugu denbora galdu, aldaketak egiten ukonoz ukondo lan egin dugu, gaizki zegoen guztia, ondo uzten. Egin gabe zegoen guztia eginda uzten.

Konplexua zen guztia, erraz egiten. Mundu hobea egiteko inplikatu ziren eta ikusten jakin zuten pertsoneri esker lortu zen hau guztia.

Zure lana amaituko dugu, zure izenean, azken eskaera bat eta lekukoa pasako dugu, beste batzuek, guk egin genuen bezala, zubiak eraikitzen jarrai dezaten. Beti aurrera!

Beti egongo zara bizirik gure

bihotzetan. Orain gure bizitzako lan zailena geratzen zaigu; zu gabe bizitzen ikastea...

Agur ausarta. Orain lasterka egin ahalko duzu, jauzi egin, dantzatu, baita hegan egin ere. Itxaroiguzu, batera egotera itzuliko baikara. Agur bihotza. Patecritarrak. Game forever!

Zure gurasoak.

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

PSE-EE: “Ez dute nahi Usurbilek eskola publikoa izatea”

Azaroaren 14an, EH-Bilduk 2018ko udal aurrekontu-proposamena aurkeztu zuen Ogasun Batzordean. Geroztik, udal gobernua auzoz auzo ibili da bere egitasmoen berri ematen. Aste honetan, ezusterik ezean, hasieraz onartuko da udalbatza plenoan. Oposizioko alderdiengana jo dugu iritzia eske, eta hauek dira emailaz egin dizkiguten adierazpenak.

NOAUA! Udal gobernu taldeak azaroan aurkeztu zuen 2018. urterako aurrekontu proposamena. Ze inpresio hartu duzue? Aurreko urteetako ildo jarraitzen du edo berrietasunik aurkitu al diozue proposamenari?

Fermin Orue-Echevarria, PSE-EE. Oro har, etengabeko aurrekontua da, inbertsioen kapituluan izan ezik, non bi elementu garrantzitsu biltzen diren, haiek aipatuko ditut bigarren erantzunean.

N. Inbertsioetan nagusiki berritze lanak aurreikusitako dira: Zumarte Musika Eskola birgaitzea, Kiroldegia eguneratzea, Artzabalgo plaza berritzea... Inbertsioei dagokionez, zertan asmatu du Xabier Arregiren lan taldeak eta zer da faltan botatzen duzuen?

Oro har, erakunde publikoek egindako inbertsioak, normalean positiboak izaten dira, enplegua eta aberastasuna sortzen dute berez, eta hobetzen dute herritarren bizi kalitatea.

2018. urteko aurrekontuan sartutako inbertsioen artean, guztiak onuragarriak izan arren, bi nabarmentzen ditut: Zumarte, hedapen eta erreformarekin lotuta dagoena; eta Oiardo Kiroldegiaren erreforma.

Udaletxeko hiru indar politikoek aho batez onartu dute.

Lehenengo kasuan, badirudi Usurbilgo biztanleen senti-



Fermin Orue-Echevarria, PSE-EEko udal zinegotzia.

FERMIN ORUE-EHEVARRIA PSE-EE

“Zumartekoa da legealdi osoko proiektu garrantzitsuena eta udaleko hiru indar politikoen laguntza izan du”

mendu orokorra dela, hezkuntza musikalaren eraikuntza moderno bat eduki ahal izatea. Udalaren ahalegina oso garrantzitsua da, baina erabat justifikatuta dago, eta amaitutakoan, ikasleek eraikin modernoa izango dute urte askotan.

Esan dudana bezala, proiektu hau, oraingoz eta legealdi osoko garrantzitsuena dela uste dut, eta udalaren hiru indar politikoen laguntza izan du.

Zerbait antzekoa gertatzen da Oiardo Kiroldegiaren erreforma partzialaren kasuan. Kasu honetan, 2018rako inbertsioaren zati bat aurreratu beharra dago, Foru Aldundiko kirol instalazioetarako dirulaguntzara sartzeko, baina aurreikusitako lanak bukatzen direnean, instalazioak hobetuko dira, eta kiroldegiko erabiltzaileek, eta asko dira, onura izango dute.

Kapitulu honek ere nire laguntza izan du.

N. Epe ertainean zeintzuk dira Usurbilgo Udalak izan beharko lituzkeen lehentasunak?

2015eko legealdiaren hasieratik, nire taldeak aldarrikatu du Udalak onartu dezala, Usurbil ez dadila izan Gipuzkoako hiru udalerrietako bat, eskola publikorik gabe (Haur Eskolaren kasuan izan ezik).

Ez dut zentzu horretan saiakerak azaltzeko leku askorik, baina adierazi, beti udal gobernuaren oposizioa aurkitu dutela.

2016ko aurrekontuekin saiatu nintzen, EH Bilduren kontrako botoarekin. Udal gobernuak jartzen zuen aitzakia zen ez zekiela Eusko Jaurjaritzaren asmoa zein zen gai honi buruz.

2016ko abenduko plenoan, 2017ko aurrekontuak bozkatzen ziren, eta nire abstentzioa eskaini nuen Eusko Jaurjaritzarekin elkarrizketa bat antolatzeko, zalantzak argitzeko.

Nire zatia bete nuen, eta abstentitu nintzen.

Hamabi hilabete igaro dira, izan dira Hezkuntza Sailean, elkarrizketa bat izan dute sailburuarekin (Zumarte eskolagatik), eta ez zuten aprobetxatu bere herriko eskola publikoaren gaiaz eztabaidatzeko.

Beste urte bat galduta, eta beldur naiz legealdia ere gai honekin galduta dagoela.

Jardunbide hori bi puntutan

ulertzen da:

1.- Ez dute nahi Usurbilek eskola publikoa izatea.

2.-Gehiengo absolutua dute eta ez dute nire botoa behar.

Udalaren osaera ez bada aldatzen, Usurbilek ez du aurre-erago egingo gai honi buruz.

Amaitzeko, NOAUAko irakurleek adierazpen hauek irakurtzen badituzte abenduaren 19aren ondoren, aurrekontuak bozkatu ondoren, harritu daiteke, inbertsioen kapitulua onartu arren, aurrekontuaren aurka bozkatzea.

Aipatu ditugun inbertsioak zergatik onartzen ditudan, argi utzi nahi dut; (Zumarte, Oiardo, eta beste batzuk), beharrezkoak dira, Usurbilentzat positiboak direla ulertzen dudalako, eta horregatik bozkatu nuen batzordean, adibidez, Zumarteko lana finantzatzeko maileguaren eskaera eztabaidatu zenean.

Baina aurrekontu osoaren aurka bozkatzen dut, udal gobernuak engainatzen nauenez, akordio nahiko sinplea lortzeko izan arren, ez zuen horrelako abantaila aprobetxatu Usurbilgo eskola publikoaren etorkizunari iritzia emateko.

Hori iruditzen zait oso txarra dela Usurbilentzat.

Udal gobernuaren adierazpenak, datorren zenbakian

Denen iritzia batu asmoz, udaletxean ordezkatuta dauden hiru alderdiei balorazio moduko bat egitea eskatu zaie. Ohi bezala, bi zatitan jasoko ditugu adierazpenak. Aste honetako NOAUA!n oposizioko alderdien iritzia batu ditugu. Datorren zenbakian, aldiz, udal gobernuaren iritzia plazaratuko ditugu.

EAJ-PNV: “Zehaztasun gutxiko udal aurrekontuak”

NOAUA! Udal gobernu taldeak azaroan aurkeztu zuen 2018. urterako aurrekontu proposamena. Zer inpresio hartu duzue? Aurreko urteetako ildo jarraitzen du edo berritasunik aurkitu al diozue proposamenari?

Josune Urkola, EAJ. Ez diogu berritasunik bilatu, aurreko urteetako ildoari jarraitzen dioten aurrekontuak dira, azken urteetan bezala. Egunerokotasunari begira egindako aurrekontuak, gerora begiratzen ez dutenak, proiektu falta agerian jartzen dutenak.

Aurrekontuak oso modu orokorrean esplikatzeko dira, hiru ardatz nagusitan oinarritzen dira: jasangarria, herri nortasuna indartuko duena eta ongizatea bermatzen duena, guzti hau nola egingo den ez dakigu, aurreko urtearekiko dauden desberdintasunen zergatiak ez dira azaltzen, teknikari proposamenetan oinarrituak omen dira, bai noski, teknikoki egin beharrekoak direla uste dugu.

Zehaztasun gutxiko aurrekontuak.

N. Inbertsioetan nagusiki berritze lanak aurreikusitako dira: Zumarte Musika Eskola birgaitzea, Kiroldegia eguneratzea, Artzabalgo plaza berritzea... Inbertsioei dagokionez, zertan asmatu du Xabier Arregiren lan taldeak eta zer da faltan botatzen duzuen?

Inbertsioei dagokienean, Zumarte Musika Eskola eraberritzea ondo ikusten dugu, oso agerikoa da daukan egoera eta



Josune Urkola EAJ-PNV alderdiko udal bozeramalea da.

**JOSUNE URKOLA,
EAJ-PNV**

“Egunerokotasunari begira egindako aurrekontuak dira, gerora begiratzen ez dutenak, proiektu falta agerian jartzen dutenak”

azkenean iritsi zaio bere ordua. Beste kontu bat da 2018ko aurrekontuetan nola txertatu den lan potolo hau; 2017aren erdialdera kreditu aldaketa bat egin da lanak esleitu egin ahal izateko, baina 2018ko aurrekontuetan ez da agertzen. Gure

ustez, 2-3 urteko proiektua denez, 2018an Zumarterako behar diren diru-kopuruek aurrekontu hauetan agertu beharko lukete eta falta dena hurrengo urteetarako kreditu konpromisoen atalean, baina ez dira jasotzen.

Gainontzeko inbertsioak, Kiroldegiko lanak eta Artzabalgo plaza kenduta, guretzako zailtasunak dira, partida asko eta asko mantenu gastuak dira, hala nola, komunitate gastu bereziak, hondakinen prebentzio lanak, Oiardoko teilatua inpermeabilizatzea, eta abar...

Goian aipatu dugun bezala, aurrera begirako aurrekontuak botatzen ditugu faltan.

N. Epe ertainean zeintzuk dira Usurbilgo Udalak izan beharko litzuzkeen lehentasunak?

Tokiko industriaren eta merkataritzaren aldeko apustua egiteko estrategia bat garatzea, enpresen beharrak ezagutu eta ahal den moduan laguntza emateko.

Ingurumenean jasangarriak diren eta kontsumoa gutxitzea helburu duten energia berrizgarriak bultzatzea.

Bestalde ingurumenean defizit handia daukagu, bilketa sistema berraztertu beharra ikusten dugu.

Lankidetzaren estrategia bat komunikazio enprekin lantzea, internet konexioa hobetzeko, banda zabalaren bitartez landa eremuetara zabaltzeko.

Landa guneko biztanleriaren irisgarritasuna hobetzea, batez ere adinekoen garraio zerbitzua.

Landa guneko bide sarea hobetzea, bide hauek konpontzeko diru partida bat jarriaz.

Igogailuak edo eskailera mekanikoak jartzea, malda esanguratsuak dituzten eremuetan, irisgarritasuna hobetzeko.

Kirol pista estali berri bat jartzea egun dauden gabeziei aurre egiteko. Harane kirol eremuan harmaila estaliak jartzea.

Aparkalekuei dagokienez, dauden beharrak aztertzea eta aukerak bilatzea.

Udala Plan Orokorra lantzen ari den honetan eskola publikoari bide ematea, bere erantzukizuna baita eskola publikoaren alde egitea.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

**AINHOA
TABERNA
ALOKAIRUAN
(LASARTEN)
ZONA OSO ONA
691 64 62 04**

**Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO**

Udal legealdia baloratzeko aukera

2015-2019 legeintzaldia erdibidera heldu den honetan, Usurbilgo Udalak orain arte egindako lana, auzoetako beharren kudeaketa, udalaren jardun komunikatiboa, gobernantza eredia baloratzeko aukera dute usurbildarrek, Udalak kaleratu duen "Udalberri" argitalpen berrian txertatu duten inkestan. Legegintzaldiko hiru ekimen garrantzitsuenak, gabeziak, huts egiteak eta iradokizunak egiteko aukera ere eskaintzen du udal inkestak.

"Bi urte pasatu dira legealdia hasi zenetik, eta beharrezkoa ikusi dugu orain arte egindakoaren gaineko balantzea egitea. Guk ez ezik, zeuk ere egitea gustatuko litzaiguke. Izan ere, zuen iritziak, pertzepzioa, jaso nahi ditugu: nola doa zuen irudiko legealdia? Horretarako, galdetegi hau prestatu dugu. Gaizki egindakoak zuzentzeko eta ondo egindakoan sakontzeko, ezinbestekoa zaigu zuen ekarpenak jasotzea", diote Udaletik.

Etxeetara banatu duten aldizkariaren azken orrialdean duzue inkesta. Hura bete eta udaletxera helarazi dezakezue, bestela komunikazioa@usurbil.eus helbidera idatzi edo usurbil.eus atarian sartu,



Udalberri buletinak Usurbilgo Udalaren informazioa zabalduko du hilean behin.

UDAL INKESTA

Legegintzaldiko gabeziak, huts egiteak eta iradokizunak egiteko aukera ere eskaintzen du udal inkestak

aldizkaria eskuratu, inkesta bete eta erregistroa@usurbil.eus helbidera emailez helarazi dezakezue. Sutegi udal liburutegian, Oiardo Kiroldegian eta udaletxean bertan ere eskuragarri jarri dute.

"Udalberri"

Inkesta aipatu moduan, Udalak "aspaldiko hutsune bat estaltzeko helburuz" kaleratu duen "Udalberri" aldizkari berriak dakar. Udal informazioa jasoko duen lau orriko hilabetekari berria etxez etxe banatuko dute

aurrerantzean. "Udal informazioa usurbildarren eskura jartzeko, eta usurbildarrek udalak hartzen dituen erabakien, iragartzen dituen lanpostuen, ekitaldiez edota edozein motako ekimenen berri emateko bokazioz jaio bada ere, udalak ez luke nahi informazioa alde-bakarreko norabidekoa izaterik soilik. Komunikazioa bi norabidekoa izan behar duela sinetsita, herritarrak udalera zuzentzeko bitartekoa ere izan nahi du aldizkariak, eta horretarako moduak zeintzuk diren jasotzen ditu argitalpen honek, bai alkatearengana zuzentzeko bai komunikazio-arduradunarengana zuzentzeko", berri eman du Udalak.

2018ko udal aurrekontuak, Errautsen Parkearen inaugurazioa edota Xabier Arregi alkatearen idatzia dakar "Udalberri" argitalpenaren lehen zenbakiak.

Izen ematea, KoopFabrikaren bigarren edizioan

Ekintzaitzeta sozial kooperatiboa eta ekonomia soziala sustatzeko programaren 2018ko edizioan doan izen emateko epea zabalik izango dute abenduaren 23ra arte, Gipuzkoa osoko proiektuek. "Kooperatibak edota proiektu komunitario eraldatzaileak martxan jarri nahi dituzten pertsona eta taldeentzat formakuntza, tresna praktikoak, elkarlan sarea eta proiektuen jarraipena eskainiko ditu". Plaza mugatuak izango dira.

Informazio gehiago:

koopfabrika.eus
info@koopfabrika.eus
618 216 718

Eguneko Arreta Zerbitzuaren araudia, behin betiko onartuta

65 urtetik gora izan eta mendekotasun maila txikia duten herritarrei zuzendua dagoen Eguneko Arreta Zerbitzu berriaren araudia behin betiko onartu dute, irailaren 26an hasieraz onartu eta gerora finkaturiko epearen baitan inork erreklamaziorik aurkeztu ez ostean. Zerbitzu berria martxan du Usurbilgo Udalak Artzabalena.

Zumarteren handitze eta berritzea sustatuko duten erabakiak

Batetik aurreko urriko osoko bilkuran mahai gainean utzitako 2017-2020 epealdiko plan ekonomiko-finantzarioa onartu zuen udalbatzak, azaroaren 30eko osoko bilkuran. Horrekin batera, Zumarte Musika Eskola kokatua dagoen Rezustaenea eremuko Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 Sistema Orokorren Antolamendu Xehatuaren aldaketa behin betiko onartu zuten.

2017-2020 urte arterako plan finantzario-ekonomikoa

Kontu-hartzailearen txostena, alkatearen memoria eta 2017-2020 epealdiko aurrekontu eszenarioa biltzen dituen 2017-2020 epealdiko plan ekonomiko-finantzarioa onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz azken osoko ohiko bilkuran, EHBilduko udal ordezkarien aldeko bozkekin. EAJ eta PSE abstenitu ziren.

Gogoan izan, ekainaren

27ko osoko bilkuran 2 milioi euroko kreditu aldaketa onartu zuen udalbatzak proiektu honen gastuei aurre egin ahal izateko. Kreditu hau mailegu baten bidez finantzatzea erabaki zuten. Urriaren 31ko osoko bilkuran 2 milioi euroko kreditu eragiketa Kutxabank entitatearekin egitea erabaki zuen udalbatzak gehiengo osoz, EHBildu eta PSE-ren aldeko bozkekin. EAJ abstenitu zen.

Rezustaenea

Zumarteren handitze eta berritzeari dagokion bigarren erabakia, hirigintza eremuko da. Musika eskola kokatua dagoen Rezustaenea eremuko Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 Sistema Orokorren Antolamendu Xehatuaren aldaketa behin betiko onartu zuen udalbatzak aho batez, azaroaren 30eko osoko ohiko bilkuran.

Ospetsuena izango da datorren Inauteri Festa

Famatuen alfonbra gorria osatu nahi genuke otsailaren 10erako antolatzen gabiltzan Inauteri Festan. Euskal Herriko pertsona ezagunak gonbidatu nahi genituzke mozorro festara; kirolariak, antzezleak, musikariak, aurkezleak, politikariak, herri eragile nahiz mugimenduetako aurpegi ezagunak... Erreferente edo bide urratzaile izan ditugun hamaika pertsona ezagun ditugu Euskal Herrian.

Denek hona etortzea ezinezkoa izango dutenez, alfonbra gorrirako izarrek behar ditugu, zuek alegia. Animatu beraz. Gustukoen edo gustuko ez duzun pertsona ezagun horren paperean sar zaitezke, otsailaren 10ean. Hortxe, Inauteri Festan mozorrotzeko proposatzen dizuegun gaia. Azken asteotan elkarte@noaua.eus helbidean edota Bordatxo, Txirris- tra, Benta, Txiriboga, Txapeldun, Guria, Artzabal eta Aitzaga tabernetan jarritako zerrendetan egin dituzuen ekarpeneta-



Ospetsuak, hori izan da hautatu den gaia. Otsailaren 10eko Inauteri Festan ikusiko dugu emaitza.

tik hautatu dugu. Milesker beste behin, zuen ideiangatik!

Eta orain lanera, mozorroa prestatzera.

Bi hilabete eskas geratzen dira. Egun horri begirako ekimenen berri ematen joango gara urtarriletik aurrera.

Zorriak eta Urte Berri on!

hurrengo **noaua** urtarrilaren 12an

“Aamen Bea 2”, arrakastatsua



Goitik hasita, ezkerretik eskuinera: Iñaki Agirresarobe, Ainara Ullate, Ixabel Agirresarobe, Alberto Pikabea eta Pako Agudo. Behean ezker eskuin: Mikel Alkorta, Mikel Elexpe, Kerman Rekondo eta Paulino Ibargoien.

Ordubetez barre gogotik egin-go zutela iragarri, eta asebeteta geratu ziren Sutegi goraino bete zuten ikus-entzuleak baita antzezle taldea ere.

Abenduaren 16ko “Aamen Bea, gure sagardotegiya 2”

herri antzerkiaren estreinaldia arrakastatsua izan zen. Ondoko irudian duzue antzezle taldea. Goitik hasita, ezkerretik eskuinera: Iñaki Agirresarobe, Ainara Ullate, Ixabel Agirresarobe, Alberto Pikabea eta Pako

Agudo. Behean ezker eskuin: Mikel Alkorta, Mikel Elexpe, Kerman Rekondo eta Paulino Ibargoien. Pikabeak eta Agudok egin dituzte gidoilari lanak.

Zorionak denei!

Ordutegi aldaketak

Datozen jai egunak tarteko, aldaketak izango dira zenbait zerbitzuetan. Sutegi udal liburutegia ohiko ordutegian zabalduko dute astelehenetik ostiralera abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik; 10:00-13:00 eta 16:00-19:30 artean. Datozen hiru larunbatetan aldiz itxita egongo da; abenduaren 23an, 30ean eta urtarrilaren 6an.

Aldaketak baita garraio zerbitzuetan. Ohi bezala, abenduaren 24, 25 eta 31n, baita urtarrilaren 1ean ere zerbitzuak murriztuko dituzte. Adi beraz. Informazio gehiago: lurraldebus.eus / 900 300 340 / euskotren.eus / 944 333 333.

Gaztetxoentzako aisialdi ekimenak, eskuorri batean

Ekintza mordo antolatu dituzte asteotarako: Gabonetako Haur Parkea, izotz pista, ikuskizunak, gabon kantuen saioak, Errege Kabalgata... Haur eta gaztetxoei zuzendutako gabonetako ekintzen xehetasunak eskuorri batean jaso eta ikastetxeetan banatu ditu Udalak. Eskuorri gehiago Potxoenean eskura ditzakezue.

Udarregi Ikastolak mende erdia beteko du 2018. urtean

2018an izango da. Urtemuga bereziko antolaketa lanetan parte hartzera deitzen dute, udarregi.eus atarian sartu eta izena emanda. Momentuz, hemen hurrengo hilabeteetarako aurreikusten dituzten ekintzak:

- Urtarrila: Ikastolaren leloa diseinatzen.
- Otsaila: 50. urte inauteriak

ospatzen.

- Martxoa: atzotik gaurdaino: ikasle, irakasle, lehen-dakari eta famili ohiak....
- Apirila: Udarregi 50. urte bertsotan: Udarregi bertsolari, Udarregi ikastola....
- Maiatza: Udarregi sagardi artean: Usurbilgo bideetan barna (ibilaldi, paseo...).
- Ekaina: Ikastola Eguna. “Izango gattunk beste 50 urteetan! Bai horixe!”.



Duela bi urte ‘Gattunk’ urtea izan bazen, 2018koa 50. urteurrenarena izango da.



Bertako enpresako teknikoak, mantentze lanetarako erabiltzen dituzten autoekin.

Bertako igogailuak: mantentze-lan profesionalaren aldeko apustua

Ospakizunetan daude Bertako enpresan. Hiru urte beteko dituzte laster, eta badute zer ospatu: Euskal Herrian mantentze-lanak egiten dituzten enpresen artean gehien hazi dena da. Bizilagunen komunitate askok erabakitzen dute mantentze-lan enpresa aldatzea eta Bertakoren aldeko apustua egitea. Urtean, batez beste, 200 komunitatek egiten dute 10-15 urte arteko eskarmentua duten teknikarien aldeko hautua.

Hori da, gainera, Bertakok duen baliorik handiena: teknikariak. Eurek sortutako enpresa da. Beste leku batzuetan lanean jardun eta hango baliabideak ikusita, enpresa berria sortzeko erabakia hartu zuten pertsonak. Teknikari horiek 24 orduko zerbitzu erreala ematen dute; hau da, larrialdietan bakarrik barik, abisu guztiak kontrolatzen eta premiak betetzen dituzte, astelehenetik igandera, 24 orduz eta urteko 365 egunetan.

Dena den, eguneroko lan onari esker, egiten duten mantentze-lan onari esker, matxurengatik jasotako abisuak oso gutxi dira. Teknikariek egiten duten lan onak, gerora dauden abisuen kopurua txikitu egiten du, nabarmen.

Euskararen garrantzia

Bertakok duen beste balio garrantzitsu bat euskararen erabilera da. Lehen momentutik euskaraz jarduten dute: aurrekontuak egiterakoak, komertzialen bisitatan, administraziokoekin berba egiterakoan, kontratuak idazterakoan... Askok eta ondo baloratzen dute bezeroek euskararen erabilera.

Eta behin Bertako aukeratu ostean, bezeroek askatasun osoa dute nahi dutenean kontratua eteteko. Kontratu libreak egiten dituzte. Urtebetekoak. Bezeroak engainatu barik eta iraupen-konpromiso barik.

Ia hiru urteko ibilbidean, bezero askok Bertako aukeratu dute eskaintzen dituen tarifengatik. Oina-

Eskaintzen ditugun zerbitzuak, hilean 100 eurotik aurrera

- 24 orduko zerbitzua abisu guztientzat
- Pieza guztiak barne, orotariko zerbitzuan
- Iraupen-konpromiso gabeko kontratua
- Larrialdi telefonoa doan, instalazio guztietan
- Bakarrik itzaltzen diren LED argien instalazioa doan
- Efizientzia energetikoan oinarritutako ikuskapena

erizko kontratua hileko 80 euro ingurukoa da eta arrisku orotakoa, hileko 100ekoa. "Prezio logikoak dira. Ez da normala Euskal Herriko enpresa batzuek 160 euro kobratzea arrisku orotako zerbitzuaren gatik eta inguruko eskualdeetan prezio hau ia erdira jaitea, bertan ditugun enpresa askok gure tarifa merkeagoak erabiltzen dituzte. Hori bai, Euskal Herri inguruan ditugun eskualdeetan", diote enpresakoek.

Larrialdi zerbitzua

Ia hiru urteko ibilbidea laburra da, baina nahikoa izan da lorpen arrakastatsuetara heltzeko: bezero guztiek dute igogailuaren larrialdi sistema telefonoetara lotuta eta guztiek dituzte LED argiak. Argi kontsumoa murrizteko automatikoki itzaltzen diren argiak, alegia.

Duela ia hiru urte sortutako enpresa izanda ere, bere zabalkundea itzela izan da beste bailara eta lurralde batzuetara.

Gipuzkoan, Arrasaten eta Anoetan biltegiak ditu Bertako enpresak. Hori horrela, ematen duten zerbitzua oso azkarra da, profesionala eta gertukoa.

943-90 34 50 telefonoan eska daiteke informazioa eta aurrekontua. Beti ere, lehen berba euskaraz jasota.

Emankorra, usurbildarren

Egunotan ez dakizuela zer oparitu? Usurbilgo sortzaileen 2017ko produktu uzta eskaintza zabala eskura duzue ba. Uzta ederra utzi digute aurtengoan ere. Sutegi udal liburutegiaren eta NOAUA! Kultur Elkartearen elkarlanean, kultur etxeko aretoko erakusleihoan izango dituzue ikusgai urtarilaren 8ra arte. Eskuragarri aldiz, liburutegian bertan, Aitzaga tabernan (musika taldeen CD-ak), Lizardi eta Laurok liburu dendatan eta NOAUA!ren egoitzan (Alejandro Tapiari buruzko argitalpena).

Diskoak

Odolaren Mintzoa:

“Etsipenaren aurka”

Izenburu hori ipini diote diskoari. Eta hein handi batean, hori da taldeak aldarrikatu nahi duena. “Disko honen helburua horri kontra egitea da, eta horri aurre egiteko aukerarik badagoela adieraztea”, taldearen esanetan. Bi aurpegi ditu diskoak, bat melodikoagoa eta bestea gogorxeagoa.

■ Taldekideak: Joanes Txueka (baxua, ahotsa), Beñat Txueka (kitarra), Jokin Irastorza (bateria) eta Luken Arkarazo (kitarra, ahotsa).

■ Informazio gehiago:
Facebook: Odolaren Mintzoa

Zaparra:

“Putzu sakonetik”

Irungo Maketa Lehiaketan sariatu ostean, Haranen ekoiztutako estreinako lana. “Gure ikuspedia da gizartea putzu sakonean dagoela. Putzu sakonetik hasi genuen, aldatzen joateko, putzu horretatik ateratzen saia-



Odolaren Mintzoa, Erokomeri, Zaparra, eMe eta Joseba Tapiaren diskoen azalak.

tzeko”.

■ Taldekideak: Jon Mikel Azpiazu (kitarra eta ahotsa), Mikel Romero (bateria), Jon Guadix (kitarra eta ahotsa) eta Endika Larrañaga (baxua).

■ Informazio gehiago:
Facebook: Zaparra Taldea.

eMe:

“Beleak elurretan”

Haritz Harreguyren bizipen pertsonal eta musikaletik abiatutako proiektua. Konposatzeko modu eta soinu oso pertsonalak biltzen ditu. 2015-17 artean garatzen joandako lanak pop kutsuko abestiei aire sofistikatu, iradokitzaile eta karga elektronikoko handia eranstean diote.

■ Taldekideak: Nora Izagirre (ahotsa), Haritz Harreguy (gitarra, programazioa) eta Ruben Caballero (gitarra, baxua, programazioak).

■ Informazio gehiago:
higain.net

Erokomeri:

“Izan”

“Hiru urte Euskal herriko hainbat herritako festa eta txoko dantza jartzen ibili ostean gure lehen diskoa grabatzeko jautzia eman dugu. 10 kantuz osatutako diskoa dakarkigu, horietako bi instrumentalak direlarik: intro-a eta fandango arin-arina. Orokorrean, esan daiteke disko alaia dela nahiz eta baden kantu lasaiagorik, intro-a edo bals-a tarteko. Bestalde, gure herrian ohitura zaharra den dantza klasikoari buelta bat eman eta fandango arin-arinaren formatu berri-tzaile bat bilatzen saiatu gara”.

■ Talde kideak: Talde kide gehienak azpeitiarrak izan arren, tartean usurbildar bat dugu, Josu Furundarena (gitarra). Berarekin Asier Aizpuru (bateria), Eider Iturralde (ahotsa), Maialen Bastida (ahotsa), Martin Altuna (trikitia), Miren Cuervo (panderoa eta txistua), Unai Olaizola (baxua).

■ Informazio gehiago:

Facebook: Erokomeri Taldea

Joseba Tapia eta Besamotzak

Bakarlari gisa 20 urte betetzear dituen honetan, bere alderdi rockeroa agerian uzten duen lana, bere abesti ezagunen erreposoa egiten laguntzen diguna lana. NOAUA!ren Kulturaldiaren baitan entzungai izan genuen.

■ Taldekideak: Joseba Tapia (kitarra elektrikoa, baju elektrikoa, programazioa, eskusoinua, ahotsa), Iker Uriarte (jazpana) eta Iñigo Telletxea (baju elektrikoa).

■ Laguntzaileak: Dani Narbarte (eskusoinua), Mainer Ansa (koruak) eta Jexux Aranburu (organoa). “Real politik” abestia kantatzeko lanetan, Morau, Txuma Murugarren eta Beñardo Goietxeren laguntza.

■ Informazio gehiago:
josebatapia.eus

2017ko sortze lanen uzta

Liburuak

“Landareak lantzen 2018rako gida-liburua”

“Baratzean, fruitu arboletan, lorategietan, basoan noiz zein lan egin? Erein, landatu, inausi, tratatu, uztak jaso, txertatu... Zein urte garaitan egin behar da lan bakoitza? Izan ere, zenbat lan! Hemen duzue urte osoan egin beharreko lanen egutegia, sasoi bakoitzari, hilabete bakoitzari eta ilargialdiari lotuta. Era berean eta gure lanak ikasteko bide izan ditzagun, lan bakoitza noiz eta nola egiten dugun jasotzeko aukera ematen du gida honek. Ikasteko bide onena egindako lan guzti-guztiak ahal den eta zorrotzen jasotzea baita. Jaso eta ikasi”.

■ Egileak: Jakoba Errekondo eta Antton Olariaga.

■ Argitaratzailea: Argia.

“Flores para el diablo: Miradas que lanzan amistad y amor”

2015ean aurkeztu zuen “Sólo amor” lanaren ostean dakarkigu bigarren argitalpen hau. Lan poetiko ezberdina, bertsoaren sentsibilitatea eta teknika literario errebeldea uztartzen dituena.

■ Egilea: Xabier Uribe Navarro.

■ Argitaletxea: Terra Ignota Ediciones.

“Hamaika euskal literato eta Jainkoa”

11 euskal idazleak, tartean Joxan Artze usurbildarrak jainkoari buruz duten ikuspuntuaz eginitako lanak aztertzen ditu argitalpen honek.

■ Egilea: Sebastian Gartzia Trujillo.

■ Argitaletxea: Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).



Liburuak, diskoak eta disko-liburuak. 2017ko uzta oparoa eta orotarikoa izan da.

“Eskularru beltzak”

Gurasoek ingelesa ikasteko udaleku batera bidali dute Beire. Institutuan gelako liderra da, baina udalekuan ez du inork aintzat hartzen. Babarengan aurkituko du babes. Etxera itzulita, Kar eta Leterekin osatzen duen Sua taldea prest da berriz ere institutuko izarrak izan eta egurra emateko. Aldiz, ikasturte honetan gauzak desberdinak izango direla dirudi.

■ Egilea: Jasone Osoro Igartua, Joseba Larratxe “Josevisky”ren ilustrazioak.

■ Argitaletxea: Elkar.

“Pirritx, Porrotx eta Marimotots: antzinako zuhaitza”

12 abesti eta 12 poema biltzen dituen CD eta liburu honetarako ilustrazioak sortu ditu Jose Luis Zumeta artista usurbildarrak.

■ Elkarlanean: Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak, haurrak, Xabier Amurizaren ahotza, Xabier Zabalaren musika, Jose Luis Zumetaren ilustrazioak, Joan Mari Irigoienek poemak.

“Alejandro Tapia”

Joan den azaroko NOAUA! K.E.-ren Kulturaldian, iazko abenduan zendu zen Alejandro Tapia margolari aginagarraren omentzeko Sutegin bere lanekin antolaturiko erakusketan eskuragarri izan zen bere koadroen irudi bilduma liburu. Usurbilgo alkate Xabier Arregiren, Anjel Lertxundi eta Bernardo Atxaga idazleen hitzez hornitua. Alejandoren sortze lanen irudi eta biografia ezagutzeko aukera ematen diguna.

■ Elkarlanean: erakusketa bera, omenaldia eta argitalpen hau, Alejandro Tapiaren familia eta inguruaren, Usurbilgo Udalaren eta NOAUA! Kultur

Elkartearen arteko elkarlanaren emaitza izan da.

“Züek heben, Euskal Herriko atlas geopoetiko”

2012-2016 urte artean Euskal Herriko zazpi toki ezberdinetan, Pagolan, Arnegin, Hendaian, Barkoxen, Iruñan, Beran eta Aginagako 2013ko San Praixku jaietan bizi, sentitu, ikusi eta entzundakotik sortu dute Euskal Herriko Atlas geopoetikoaren lehen tomoa. “Argazkilari bat, soinu hartzaile bat eta bi musikari-kalakari. Herrian berean, egun hauetan berean ikusi, entzun eta sortu dugunetik egina duzu”, 2 CD eta liburuak.

■ Egileak: Mixel Etxekopar (egilea eta musikaria), Jean Christian Galtzetaburu (musikaria), Pierre Vissler, Joanes Etxebarria eta Patxi Laskarai argazkilariak.

■ Argitaletxea: ZTK Liburuak.

Hitza hartu eta adosten hasteko garaia

Txartel berdea eskua altxatuz baietz esan zuten, hitza hartu eta konponbide adostu batera heldu nahi dutela. GuraSOSek deituta abenduaren 16an Donostiako Eureka zientzia museora gerturaturiko Gipuzkoako herritar eta eragileetako ordezkariak (sindikatu, hezkuntza edota ingurumen eremukoek) hondakin kudeaketarekin dugun gatazkaren konponbide adosturantz eramango gaituen Hitzartu prozesua eratu eta abiatzea erabaki zuten aho batez.

Gizarte zibilaren ekimenez jaio den egitasmoa, haren finantza proiektua eta prozesuaren jarraipena egingo duen Berme Batzordeari erabateko babesa eman zioten bertaraturikoek.

Herritarrak, eragileak eta erakundeak erdigunean jarri eta guztion elkarlanez garatuko den aurrekaririk gabeko, eta eredu gisa nahiz moduetan berritzailea izango den parte hartze prozesua abiatzera doaz honenbestez, urte berrian sarzerekin batera. “Denon artean prozesu parte hartzailea garatuko dugu, adostasuna helburu izan eta plan adostua erdietsiko duena”, adierazi zuten GuraSOSeko ordezkariak ekimenaren aurkezpenaren amaieran, bozketa egin ostean. “Prozesu hau esperimendu



GuraSOS taldeak aurreko larunbatean aurkeztu zuen Hitzartu egitasmoa.

GURASOS

“Prozesu parte hartzailea garatuko dugu, adostasuna helburu izan eta plan adostua erdietsiko duena”

bat da, aukera berri bat, Gipuzkoako jendartearentzat”. Foro irekia eta anitza izatea nahi dute, demokrazia ordezkatzailak bermatu ahal izan ez duena egitea helburu izango duena; “hondakin inguruko kezken, jakin minen eta iritzi guztien gainean hitz egitea”. Alegia, “aniztasunetik, elkarriketa, informazioa, eztabaida eta parte-hartzeaz” irtenbide adostu eta demokratikoa eman nahi dio Hitzartuk.

Urtebeteko prozesua

Urtebete iraungo du proze-

suak. Hiru fase nagusi izango ditu: 2018ko lehen sei hilabetean herritar eta eragileek hartuko dute hitza. Ahalik eta parte hartze zabalena sustatu nahi dute haiekin. Bertan bildutako ekarpenekin, etorkizuneko Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko plana erredaktatuko da. Eta 12 hilabete barru, 2018ko abenduan, plana bera aurkeztu, aztertu, baloratu eta oniritzia eman beharko da.

Prozesu honen harira bi mahai eratuko dira; mahai soziala eta teknikoak. Mahai sozialak herritar eta eragileekin egingo den parte hartze prozesua kudeatuko du lehenik. Hortik ateratako ekarpenekin, adituez osaturiko mahai teknikoak erredaktatuko du 2030. urtera arteko Gipuzkoako hiri hondakin kudeaketa plana.

Bi mahai osatuko dira

Mahai Soziala

(Eztabaida mahaia):

■ Parte hartzaileak: ahalik eta sektore sozial gehien eta aniztzez osaturiko mahaia.
 ■ Egitekoa: 2018ko lehen sei hilabetean deituko dituen batzarretako lanketa. Gipuzkoako udalerrri eta eskualdeetan bildutako iritziak eta lehentasunezko

proposamenak mahai teknikora helaraztea.

Mahai Teknikoa

(Idazkaritza mahaia):

■ Parte hartzaileak: eremu ezberdinetako adituak; juristak, ekonomistak, soziologoak, politologoak, irakasleak, osasun eremuko profesionalak...

■ Egitekoa: “Hondakin Plan-gintzaren egitura eta eduki edo atal nagusiak markatzea eta Mahai Sozialaren proposamenak jasoz gero, Plana idaztea”.

Prozesuaren diseinatzailea

■ Euskal Herriko Unibertsitatea.

Hitzartu prozesuaren xehetasunak

Oinarriak

1-Gizarte-kohesio handiagoa lortzea.
 2-Ingurumena eta osasuna gehiago babestea.
 3-Europako araudi eta politikak zorrotzago betetzea.

Hiru azpi parte hartze prozesu:

1-Parte hartzea.
 2-Planaren erredakzioa.
 3-Babes juridikoa.

Egitekoak:

■ Herritarren parte hartze prozesua burutzea.
 ■ Parte hartze prozesutik 2017-2030 urtera arteko Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralaren dokumentua erredaktatzea. Dokumentu horrek jasoko du parte hartze prozesutik ateratako herritarren akordioa eta Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko irtenbide teknikoak.
 ■ Hondakin kudeaketaren gaiaren inguruan adostasuna lortzea.

Egutegia

Urtebeteko iraupena izango du prozesuak:

■ 2017ko abendutik 2018ko urtarrilera: diru-bilketarako kanpaina (crowdfunding bidez).
 ■ 2018ko otsailetik ekainera: parte hartze prozesuaren dinamizazioa. Herritar eta eragileekin batzarrak.
 ■ 2018ko irailetik abendura: mahai soziala eta teknikoaren arteko lanak eta dinamizazioa eta 2017-2030 urtera arteko Gipuzkoako Hiri Hondakin Kudeaketarako Plan Integralaren idazketa.
 ■ 2018ko abenduan: Mahai Teknikoak idatzitako hondakin kudeatzeko plan berraren aurkezpena. Planaren azterketa, ebaluaketa eta parte hartzaileen oniritzia emateko batzarrak.

“Hitzartukide” izateko deia egin dute

Hitzartu prozesuaren baitan aurreikusiak dauden ekintza guztiak garatzea gutxi gorabehera, gehienez jota 80.000 euroko gastua eragingo duela aurreikusten dute proiektu honen sustatzaileek.

Gastuoi aurre egiteko 40 eguneko diru bilketa kanpaina abiatu dute. Horretarako “crowdfunding” proiektuak finantzatzen dituen Itsulapiko enpresa kontratatu dute. Bere web orrian, itsulapikoa.eus atarian lagundu dezakezue diruz Hitzartu prozesua. Kanpaina honen baitako diru-ekarpenak egiteko ohiko bideak baliatuko dituzte: kontu korrontea, kaleko diru-bilketak edota antolatuko diren ekitaldiak. Tarte honetan behar beste diru bilduko ez balitz, 2018ko udan bigarren seihileko ekintzak finantzatzeko beste kanpaina bat egitea aurreikusten dute.

Erakunde nahiz norbanakoak, Hitzartukide

Gizarte zibila, herritar eta erakundeek Hitzartukide egitera animatzen dituzte. Hitzartukide izatera animatzen diren erakundeek “kopuru jakin bateko ekarpena eta haien bazkideen artean beste kopuru bat biltzeko konpromisoa hartzea proposatzen da”. Norbanakoak ere izan daitezke Hitzartukide. “Kasu horretan ere, bakoitzak ekarpen bat egingo du, eta haien inguruan kopuru jakin bat biltzeko “konpromisoa” har dezakete”.

Hitzartukide izatea, proiektu honekiko jarrera aktiboa hartzeko modu bat dela adierazten dute Hitzarturen sustatzaileek, “azken finean haiek (herrita-



Gastuoi aurre egiteko 40 eguneko diru bilketa kanpaina abiatu dute. Web orri honetan, itsulapikoa.eus atarian lagundu daitezke diruz.

GURASOS

Hitzartukide egiten diren erakundeek “kopuru jakin bateko ekarpena eta haien bazkideen artean beste kopuru bat biltzeko konpromisoa hartzea proposatzen da”. Norbanakoen kasuan, berdin. “Kasu horretan ere, bakoitzak ekarpen bat egin eta haien inguruan kopuru jakin bat biltzeko “konpromisoa” har dezakete”

rak eta erakundeak) baitira proiektuaren onuradunak”. Gizarte osoa alegia. Gogorazten dutenez, “gizarteak bere eskubide zibil eta politikoak berreskuratuko ditu, kohesio-natzeko aukera izango du eta gaur egun jasaten duen polarizazio politikoa gainditu ahal izango du”. Bestalde, “ingurumenean hobekuntzak” aurreikusten dituzte, “berrikusiko diren Hondakinen plan eta Prebentzio programei esker”.

Jasotako laguntzaren araberrako prozesua

Jasotako diru-laguntzak baldintzatuko du prozesuaren

garapena. Hau da, proiektuko helburuak jasotako laguntza ekonomikora egokituko dira. Honenbestez, zenbat eta laguntza gehiago jaso, herritarren inplikazioa handitu ahala, prozesuaren kalitatea hobea izango da noski. “Gure nahia, prozesua ahalik eta kalitate onenaz garatzea litzateke”, desio dute.

Gardentasuna

Parte hartze prozesu honek gardentasun-bermea izango du sustatzaileen esanetan. Prozesu honek eragindako diru sarrera eta gastu mugimenduen berri jaso ahaliko da hitzartu.eus atarian. Une oro eskainiko da informazio eguneratua aipatu atari horretan, baita itsulapikoa.eus crowdfunding enpresaren web orrialdean ere. “Prozesuaren amaieran, kontuak likidatzeko eta kontu-emateko batzar bat egingo da, soberakinik izanez gero, horiekin zer egin erabakitzeko”.

Informazio gehiago:

hitzartu.eus
hitzartu@hitzartu.eus
Twitter: @Hitzartukide
Facebook: Hitzartukide

Aditu ezagunez osaturiko Berme Batzordea

“Hitzartu” parte hartze prozesua jarraitu eta gainbegiratuko duen organoa ere aurkeztu zuten abenduaren 16an Donostiako Eureka zientzia museoan; Berme Batzordea. Eremu ezberdinetako aditu ezagunek osatuko dute bilgune hau:

Kideak




Pedro Ibarra Güell (Getxo): Zientzia politikoetan katedraduna EHU-n.

Ernesto Ganuza Fernandez (Madril): Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusiko zientzialari titularra.

Juan Jose Alvarez Rubio (Zumaia): Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna EHU-n.



Garbiñe Biurrin Mancisidor (Tolosa): EAEko Auzitegi Nagusiko Lan-arloko Salako presidentea.



Bernardo Atxaga (Asteasu): Idazlea.

Izotz Pista Usurbilen!!!

Askatasun Plazan
abenduak 22tik - urtarrilaren 7ra



ORDUTEGIA:

goizez: 11:00- 13:00

arratsaldez: 17:00-20:00

SARRERAK:
Hurbilagoko
establezimenduetan:

1,50€

izotz pista bertan: 3€



Usurbilgo Udala

hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Abeltzaintza Etxatea

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



SAIZAR

Sagardoa • Sidra Natural

Heriotzaren ondorengoa ulertzeko beste modu bat

Hilerri zaharra itxiko zuela iragarri zuenean, Udalak epe bat eman zuen. Orain, senideek erreklamatu ez dituzten gorpuzkien erraustsak hilerri berriko Erraustsen Parkera eramango dituzte. Aurrerantzean ere, funtzio hori bera beteko du gorpua erraustu eta erraustsak han utzi nahi dituenarentzat. Modu anoni-moan utziko dira bertan. “Espazioaren izaera ez baita indibiduala izango, konpartitua baizik”, Xabier Arregi alkateak aditzera eman zuenez.

Erraustsen Parkea aurreko larunbatean inauguratu zen. “Eredu berri bat da. Lehendik ezagutzen ditugun ereduakin alderatuta, heriotzaren ondorengoa ulertzeko beste modu bat da hau”, halaxe azaldu zuen alkateak. Espazio honek heriotza eta lutua bizitzeko



Hilerri berrian ipini dute Erraustsen Parkea. Larunbatean inauguratu zen.

ARKITEKTOAREN AZALPENA

“Hilerri zaharretik berrira, eta bizitzatik heriotzera igarotzeko pasabidea, hori da irudikatu nahi duena”

aukera berri bat ekarriko duela uste du. “Espazio hau izan dadila hausnarketarako, bizitzaren eta heriotzaren zentzuaz hitz egiteko, nork bere sinesmenetik, askatasun osoz”.

Zentzu horretan, planteamen-
duak badu berrikuntzatik.

Bakarra inguruan

Inguruko herrietan ez da tankera honetako gunerik. “Iruditzen zait oso interesgarria dela espazio bat konpartitzea. Sinesmen, ikuskera eta mundua ulertzeko modu ezberdinen gaineratik, denok batera”, Xabier Arregik inaugurazio ekitaldian egin zituen adierazpenok.

Zorua, lauburu formakoa

Luciano Pagaegi arkitektoaren esanetan, hauxe zen hilerri berriak behar zuten errematea. Arkitekturatik baino eskulturatik gehiago duela aipatu zuen. Frontoi itxurakoa, diedroen bidez zulatua dago ezker paretan: “bizitzatik heriotzera eta hilerri zaharretik berrira igarotzeko pasabidea, hori da irudikatu nahi duena”, Luciano Pagaegi arkitektoak azaldu zuenez. Zoruari aldiz, lauburu baten forma eman zaio. Bertan utziko dira erraustsak. Eta zorua erdian, bi hegalek itxura duen eskultura bat dago. “Harrien artean egongo dira erraustsak baina arimak bertatik aterako dira hegan”.

Ekitaldia ez zen azalpenetara mugatu. Orbeldi eta Zumarteko kideek girotu zuten inaugurazioa. Yolanda Arrietak, azkenik, heriotzari lotutako pasarte literarioak ekarri zituen gogora.



Orbeldi Dantza Taldeak, Zumarte Musika Eskolak eta Yolanda Arrieta idazleak hartu zuten parte inaugurazio ekitaldian.

BON 10+

Zure 20 euroak 30 bilakatzen dira.



www.bono10.eus

Santomas Azokako txapelak Manuel Aizpurua eta Joxe Manuel Lizarraldearentzat izan ziren

Aurtengo azokak arerio sendoak izan ditu. Hozta kalean eta Bertsolari Txapelketako Finala irratian zein telebistan. Kostata baina gutxinaka batzen joan zen jendea eta eguerdi partean lepo zegoen frontoi ingurua. Taloa janez, Udarregi ikastolakoen postreak dastatuz edota lehian zen sagardoa edanez. Askok horrela gozatu zuten goiza.

Bestelako atrakziorik ere izan zen. Ixabel Agirresarobek salda beroa prestatu zuen eta bere kondairekin txikien arreta bereganatu zuen.

Babarrun otarren inguruan ere lagun asko ibili zen, ikusmiran. Baita azokaren bueltan zeuden gainontzeko postuetan ere.

Sari banaketak jakinmin handia piztu ohi du eta aurten ere hala izan da. Babarrun lehiaketan behintzat, ez da nobedade handirik izan. Manuel Aizpurua nagusitu da, beste behin ere.



Saritutako guztiak, oholtza gainean. Txapelarekin, Manuel Aizpurua (Ibai Ertz-Aginaga) eta Joxe Manuel Lizarralde (Etxetxo-Zubieta), hurrenez hurren.

NOAUA!KO ZOZKETA

NOAUA!k bi otar zozketatu zituen: Bat Errigorakoa, bestea Nafartarrena. Hauek izan ziren sarituak: Lur Etxebarria eta Amaia Etxebarria

Sagardo lehiaketako txapela ordea, Joxe Manuel Lizarralde-

rentzat izan zen. Hauek izan dira aurtengo saritutakoak:

Babarrun lehiaketa:

1. Manuel Aizpurua (Ibai-Ertz, Aginaga).
2. Jose Kruz Matxain (Olarri baserria, Elizalde).
3. Antonio Eizagirre (Aldapa baserria, Aginaga).

Sagardo lehiaketa:

1. Jose Manuel Lizarralde

- (Etxetxo baserria, Zubieta).
2. Manuel Etxebarria (Gorosti baserria, Aginaga).
3. Juan Inazio Lizaso (Munalurra).

Otarren zozketa

Otarren salmenta bidez, Nafartarrek 12.500 euro batu dituzte Zuberoako Eperra ikastolaren alde. Horietako bat, hain zuzen, NOAUA!k erosi zuen eta igandean eginiko zozketan banatu genuen, Errigorako beste otar batekin batera. Goiz partean, NOAUA!ko photocall-ean argazki bat atera zutenei zerbaki bat eman zitzairen. Zerbaki denekin zozketa egin eta hauek izan ziren sarituak: Lur Etxebarria eta Amaia Etxebarriarentzat. Zorionak!

NOAUA!ren photocall-a

Santomas Azokako photocallean argazki pila atera genuen. Argazki denak sarean topatuko dituzue, noaua.eus web orriko Argazkitegian.

Arrate Elkarteko txapelketetako sarituak

Arrate Elkarteko bazki-deen arteko txapelketetako sariak banatu dituzte. Honatx sarituak:

Eskoba:

Lurdes Aristegi, Maritxu Pagola.

Tutea:

Joxe Luis Bereziartua eta Pilar Errasti.

Puntuak:

Pakita Orbegozo eta Miren Iparagirre.

Musa:

Xanti Bengoetxea eta Julian Pikabea.



Argazkiak: Maria Angeles Arruti.

Aginaga egurrean irudikatu duen sortzailea omendu dute

Jesus, garai hura!, hasperen eginez oroitu dizkigu bere bizitzako hainbat pasarte, etxean hartu gaituen Joxe Azurmendi Aizpuruk. Arrate Elkartek urtero 80 zein 90 urte betetzen dituzten aginagarrak omentzen ditu. Aurten Joxe bera dago, omenduen artean. Ondo merezitako errekonozimendua jaso du zortzi hamarkada bete dituen "Nai-genduena" etxeko semeak, besteak beste, utzi digun ondareagatik.



Erakusketa ugari eta hainbat sari jaso ditu urteotan Joxe Azurmendik.

Garai bateko Aginaga, landa eremuko bizimodua, bizimodu horretan baliatzen ziren lanabesak "erretratatuak" utzi dizkigu egurrean, nondik gatozen, izan garenaz ahaztu ez gaitzen.

Lanabes apartak izan ditu bidelagun; bere bi eskuak. Gaztetatik omen datorkio egurra lantzeko trebetasuna. Abilezia handia erakutsi du zalantzarik

gabe.

Garai batean ukuilua zuten gunea, hustu eta bere sormen gunean bihurtu zuen. Michelingo eta baserriko lanek uzten zieten denbora tarte librean gustuko zuen beretzat egokitu zuen txoko hartara gerturatu eta egurra lantzea. Ilusioa aipatu digu behin eta berriz, ilusio handiz egin izan dituela bere sortze lanak. Ilusioa, dedi-

kazioa eta trebetasuna batuta, artelan eder ugari utzi dizkigu: Aginagako eliza "zaharra", metak, perratokia, garai bateko garbitokia, hainbat baserri eta baserrietako tresneria, tolaarea, anguletako ala, traineruak... Guztiak tamaina txikian, baina erreplika bikainak sortu ditu. Azken xehetasunera arte zainduak. Bere ingurukoek azaldu diguten moduan, "Aginagako

bizimodua egurrez egin" du Joxek.

Argazkietan oinarrituta

Argazkietan oinarrituta egin zuten hainbat sortze lan. Noiz-nahi, nahi adina irudi atera ditzakegu egun baina, erretratatuak ateratzen gutxi batzuk ibiltzen ziren garai hartakoa dugu Joxe. Egurrezko lanekin egin bezala, Aginaga iruditan jasoa du. Eta hainbat argazki, irudietan agertzen zirenei emanak baita. Egur lanekin egin bezala. Bere sortze lanak, hainbat herritarrek izango dituzte etxean.

Soinujole aparta

Egur lanak, argazkilaritza eta soinujole aparta. San Juan gau ugari musikatu dituen Aginagako Intxaurreta inguruetan. Emandako guztia eskertu diote Arrate Elkartekoek, bere 80. urtemugan. Ondo merezia zuen omenaldia. Bejondeizula Joxe, zorionak!

Lau omendu



Joxe Azurmendi Aizpurrekin batera, beste hiru aginagar omendu zituen azaroa amaieran Arrate Elkartek. Omenduek, bere lagun eta senideekin, Aginaga Sagardotegian ospatu zuten eguna. Guztira, 80 eta 90 urte bete dituzten lau aginagar zoriondu dituzte aurtengoan: 80 urtekoak: Kontxita Ikutza, Joxe Azurmendi. 90 urtekoak: Antonio Amunarriz, Joxe Manterola.

Bertsoak omenduei

(1)
Larogeita hamarreko
bi ditugu aurten,
eta larogeikoak
beste bi ondoren.
Zuen bizimodua
garbi eta garden,
geroari begira
izan itxaropen.

(2)
Jubilatu guztiok
hartu besarkada,
urteroko eguna
iritsia bai da.
Bazkarirako ere
hartua da txanda,
egun on bat pasatu
nahiko jan-edanda.

(3)
Jubilatuak eta
kristo erregea,
abendu aldirako
sendi dotorea.
Laister jaioko zaigu
guztion jabea,
berak zuzendu beza
mundu bat hobea.

Antton Pikabea Sara-sola aginagarrak aurtengo omenduei jarritako bertsoak dituzue hauek.

**Aginagan,
2017ko azaroaren 26an**

Azken ostiraleko elkarretaratzerik ez, baina ohi baino ekimen gehiago

Ursbilen Nahi Ditugu bilgunetik ohartarazi dutenez, abenduko azken ostiralean ez da hileroko euskal presoek eskubideen aldeko mobilizaziorik izango. Bai ordea, ekimen gehiago, egunotan ere eskubideen defentsak eta elkartasun ekimenek ez baitute etenik izango:

Abenduak 24, igandea

■ 12:00-13:30 Olentzero eta Mari Domingirekin euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko herri itzulua, frontoitik abiatuta.

“Aurten, herritik 595 km-ra preso dauzkaten Olatz eta Patxiren egoeraz gain, bereziki islatuko dugu beren alaba Xuarena, sakabanaketa dela medio, ezin baitu Usurbil ezagutu. Giro alaian, kantuz eta samurtasunez helaraziko diegu hirurei gure lagunkidetasuna. Ahal dela, base-rritarrez jantzita etortzea eskatzen dugu eta, era berean, abenduaren 18an, 18.00tatik 19.00tara Agerialden izango den entseguan parte hartzea ere bai”.



Abenduaren 31n, 20:00etan, urte berriari preso eta iheslarien egoera konpontzea eskatzeko topa berezia antolatu dute Dema plazan.

■ Antolatzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

Abenduak 28, osteguna

■ 19:30 “Pasaiako badia” dokumental proiektzioa Sutegiko auditorioan. Sarrera: doan.

■ Antolatzailea: herritar talde bat.

Abenduak 31, igandea

■ 20:00 Urte berriari preso eta iheslarien egoera konpontzea eskatzeko topa berezia Dema plazan.

■ Deitzailea: Usurbilen Nahi Ditugu.

Urtarrilak 13, larunbata

■ 17:30 “Elkarrekin aurrera egiteko prest gaude” aldarri-

pean, euskal presoak euskal herriratzea eskatzeko manifestazioa Bilboko Kasillatik. Mobilizazioarekin bat egin du Usurbilen Nahi Dituguk. Autobus zerbitzua izango da Usurbildik.

Izen ematea aurrez, ohiko tokietan.

■ Antolatzailea: Sare mugimendua.

Erraustegiari buruzko eztabaida teknikoa sustatzeko kanpainak 4.500 sinadura batu ditu dagoeneko

Aste hasierarako ia 4.500 lagunek emana zuten change.org atarian, EITB-k erraustegiari buruzko eztabaida teknikoa eskaintzearen aldeko sinadura. Eztabaida horretan erraustegiaren aldeko eta kontrako posizionamenduak ordezkatuak egotea eskatzen da. Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak sinadura bilketa honetan parte hartzen segitzeko kartela za-

baldu du sare sozialetatik: Twitter: @ErrausAurkMugi Facebook: Gipuzkoa errausgailurik gabe

Biodonostiaren gutun gehiago

Zubietako erraustegiaren inguruko ikerketa epidemiologikoa egin asmo du Biodonostia Osasun Ikerketa Institutuak,

Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkarguz. Horretarako, erraustegia eraikitzen ari diren eremutik gertuen bizi diren herritarrek ikertu nahi dituzte erraustegia eraiki aurretik eta ondoren, osasun proba batzuen eta gai berari buruzko galdeketa baten bidez.

Urriaz geroztik, ikerketa honetan parte hartzera animatzen duten gutunak jaso dituzte hain-

bat herritarrek. Azken asteotan herritar gehiagok jaso dituzte. Erraustegiaren Aurkako Mugimendutik ikerketa honetan ez parte hartzeko deia egin dute, eta gutunetan ageri den telefono zenbakira deitu eta kexatzeko gonbita luzatu dute baita. Bai erraustegiarekiko, baita ikerketa honekiko ere aurkakotasuna eragin dute gutunok jaso dituzten hainbat herritarren artean.

Zubietako makrokartzela eraikitzen amaitu aurretik itxi dezakete Martutenekoa

Espainiako Gobernuko Barne Ministro Juan Ignacio Zoidok lehen lerrora ekarri du berriz, Zubietako makrokartzelaren gaia. Zehazkiago esanda, bere adierazpenek. Zubietako makrokartzela eraikitzen amaitu aurretik itxi dezakete Martutenekoa eta honenbestez lur eremu horretan Donostia hazi eta garatzeko tokia utzi. Horixe adierazi zion Zoidok azaroa amaieran Espainiako Gobernuaren Diputatuen Kongresuko kontrol saioan, EAJ-ren diputatu Mikel Legardak Martuteneko zentroaren inguruan dituzten aurreikuspenen inguruan eginiko galderari erantzunez.

Gai honetan aurrerapausoak emateko, espetxe ekipamendu eta azpiegituren sozietateko lehendakaria Donostiako alkate Eneko Goiarekin biltzekoa dela iragarri zuen barne ministroak. EAJ-koen diputatuak esandakoarekin bat eginez, ezinbestekotzat jo zuen egoera argitzea, Martuteneko espetxea itxi, bertako espazioa libre utzi eta hiriburua Martutene aldean garatu ahal izateko. Hori guztia, Zubietako makrokartzelako



Espetxeen kudeaketarako eskumena euskal erakundeen esku uzteko eskaera ere egin zion Mikel Legarda diputatu jeltzaleak barne ministroari. Juan Ignacio Zoidok gai honen inguruan ez zion erantzun.

ZUBIETAKO EGITASMOA

Zoido Espainiako Barne Ministroak aitortu zuenez, arazoak sortu dira bai lurzoruan baita Zubieta gainean, erraustegitik gertu kokatzea aurreikusten duten proiektuan ere

eraikitze lanak amaitu gabe egin daitekeela dio Zoidok.

Zubietako makrokartzela beharrezkoa ote den zalantzan jarri dezakete adierazpenok.

Zoidok kontrakoa dio. "Beharrezkoa da. Zergatik? Martuteneko espetxea oso zaharkitua dagoelako, gabezia asko ditu eta ez da zentzuzkoa XXI. mendean, espetxearen arabera, presoek XXI. mendeko instalakuntzez gozatu ahal izatea edo Espainian dugun zentro zaharrena den Martutenekoa bezalako kartzela baten gabeziak jasan beharra izatea".

EAJ-ren diputatuak esandakoarekin bat egin zuen barne ministroak. Alegia, Martuteneko espetxearen berehalako itxiera defendatzen dute, era-

gin larria suposatzen duelako bertako langile eta presoentzat. Legardaren esanetan, Martuteneko espetxea Espainiako zaharrenetarikoa da eta gabezia funtzional eta egiturazko larriak ditu. Espetxea txikia, zaharkitua eta hondoratua geratu da, uholde arriskua saihesteko berritua izan den auzune batean.

Espetxeen kudeaketarako eskumena euskal erakundeen esku uzteko eskaera ere egin zion Legardak barne ministroari. Zoidok gai honen inguruan ez zion erantzun.

Hamabi urte

2005ean Espainiako Gobernuko Barne Ministerioak eta Donostiako Udalak Zubietako makrokartzela eraikitze protokoloa sinatu zuten. 2011n bi aldeek hitzarmen berri bat sinatu zuten baina Zoidok aitortu zuenez, arazoak sortu dira bai lurzoruan baita Zubieta gainean, erraustegitik gertu kokatzea aurreikusten duten proiektuan ere. Gogorarazi zuenez, ezponda eraikitze plana esleitu berri dute. Horren gainean eraiki asmo dute Zubietako makrokartzela.

Urbil guneko eta Luzuriagako ur zikinak kudeatzeko akordioa

Ur zikinen kudeaketan aurrerapauso berri bat eman dute Usurbilgo Udalak, Añarbe Urak-ek, Urbil merkatalguneak eta Fagor Ederlan lantegiak erdietsi duten akordioari esker. "Aspalditik korapilatua egon den auziari soluziobidea aurkitu diote", berri eman dute Usurbilgo Udaletik.

Urbileko eta Luzuriagako ur zikinen kudeaketa adostu dute. "Akordioaren ondorioz, orain

arte Urbilena izan den ur saneamendua Usurbilgo Udalak bereganatuko du, eta publiko bihurtuko du. Ur-saneamendu horren ustiatetaz eta mantenuaz udala arduratuko da aurrerantzean, eta, ondorioz, etorkizunean Asteasuango industriagunean gara daitezkeen jarduera ekonomikoei zerbitzua eskaini ahal izango die", zehaztu dute Udaletik.

Urbil eta Luzuriagako ur ziki-

nek tratamendu berezia behar dutela ikusita, Añarbe Urak egokitze lanak egitera konprometitu da, "hondakin-mota bakoitza bereiztuta jaso ahal izateko, eta enpresa bakoitzari dagokion tasa ezarri ahal izateko".

Urbilek bere aldetik, "hain justu, Urbilek ur zikinak isurtzeko dituen lau ubideetako bi (1 eta 2) elkartzeko ubide bat egingo du, eta hondakin urak kontrolatzeko estazioa eraikiko

du. Ur-saneamendu hori Zubietako kolektorearekin lotuta dago egun, eta, ondorioz, ur zikin horiek Loiolako araztegiaren tratatuko ditu Añarbak. Lan horiek 30.000 euro inguruko kostua izango dute, eta lauren artean ordainduko dituzte, zati berdinean. Hau da, bakoitzak 7.500 euro inguru jarriko ditu, obrak egiteko. Lanen proiektua idazteaz eta exekutatzaz Añarbe arduratuko da".

Egungo gizarte eredu hegemonikoaren aurkako Gazte Topaketak

Gazte Topaketak antolatu ditu Usurbilgo Ernai gazte erakundeak abenduaren 27tik 29ra. Oparo dator hirugarren edizioa. Hezkuntza, feminismoa, Herrialde Katalanetako prozesua, Errekaleor edota Usurbilgo gazte mugimenduari buruz hausnartuko dute. Baina aisialdirako tartarik ere hartuko dute, musika edota jan edanaren bueltan.

“Egungo gizarte eredu hegemonikoaren aurka gazte usurbildarrok biltzen garen hirugarren urtea da honakoa. Garunak irauli, ideiak askatu, esperientzia berriak ezagutu eta elkarrengandik ikasteko baliatzen ditugu topaketak. Askotan esan ohi dugu herri eredu justu, demokratiko, parekide eta euskalduna eraiki ahal izateko ezinbestekoa dela gure buruen jabe izatea. Nola egin hori praktikan, ordea? Helburu hori erdiesteko tresnak eskaintzen dizkigute gazte topaketek. Horregatik, aurten, egitarau oparoa osatu dugu Usurbilgo, Euskal Herriko zein eremu internazionalerako errealitateak gurera ekarri eta baita gai anitz eta ezberdinak ukituz ere”.

Mobilizazioarako deia

Gazte Topaketen aurretik, ostegun honetarako, abenduak 21, Katalunian deituak dituzten



Abenduaren 28an, Arraneko ordezkari batzuk Kataluniako prozesuaz arituko dira solasean.

hauteskunde egunerako Ernaik Donostian deitu duen manifestazioan parte hartzeko deia egin dute. “Desobedienciaz, 78ko erregimenarekin haustea da Euskal Herri sozialista eta feminista eskuratzeko modu bakarra. Gazteok kalera! Independentziara!”, hortxe Ernaien gonbita.

Abenduak 21, osteguna

12:30 Manifestazioa “Desobedienciaz haustura, independentziara” aldarripean Donostiako Bulebarretik, Kataluniako hauteskundearen egunean. Deitzailea: Ernai Donostia.

Abenduak 27, asteazkena

3. Gazte Topaketak

11:00 Solasaldia: “Hezkuntza Kolektiboa ezagutzen”.
17:00 Tailerra: “Feminismoa lantzen”.
22:00 Dokumentala: “Errusiar

Iraultzari buruz”.

Abenduak 28, osteguna

3. Gazte Topaketak

11:00 Solasaldia: Herrialde Katalanetako Procés-aren gakoak, gazte ikuspuntutik Arran-eko ordezkariarekin.
17:00 Hitzaldia: “Errekaleor, Gasteizko auzo askea ezagutzen”.

19:00 Mahai-ingurua: “Musika eta politika 2.0”. Jarraian, luntx-a.
22:00 Bakarlarria: Peputz (Hernanitik).

Abenduak 29, ostirala

3. Gazte Topaketak

18:00 Mahai-ingurua: “Usurbilgo Gazte Mugimenduaren bilakaera: Itaya eta gero, zer?”.
21:00 Afari-tertulia herriko preso ohiekin eta eskutitz bidalketa Olatz, Patxi eta Xuari.

Antolatzailea: Usurbilgo Ernai.

Zinera jauzi egin du Muxurbilek

Garai honetan aurreko urteetan aurrez prestatzen zituzten antzezlanek gozaten genuen. Pantaila handira jauzi egin dute ordea oraingoan, Muxurbil Antzerki Taldeko kideek. Ikasturte honetarako berrikuntzak iragarri zituzten bilgunean. Eta eginiko lanetaren emaitza primizian ikusi ahal izan zuten abenduaren 16an

Sutegiko auditoriora gerturatu zirenek. Fikziozko bi laburmetrai, “Ihesean” eta “Etxe misteriotsua”, hortxe udazken parte honetako ahaleginaren emaitza. Youtuben dituzue ikusgai, Muxurbil Antzerki Taldeak ikus-entzunezkoen atari honen baitan duen katean.

“Aurten apustu bat egin dugu. Muxurbileko gure ikas-

leek antzerkia egin beharrean zinea egiten jarri dira eta bi laburmetarai eskainiko dizkizuegu. Biak desberdinak dira eta jakin ezazue, gu ez garela zinera dedikatzen garen profesionalak. Baina emaitza zoragarria da. Eta gero etxean denbora duzuenean, Youtuben ikusgarri egongo dira. Gora Muxurbil!”, zioen laburme-

Mirotzen omeneko eskubaloi txapelketak

Infantil mailako Mirotz Ullateren omeneko gabonetako eskubaloi txapelketaren hamargarren edizioa antolatu du Usurbil Kirol Elkarteak, abenduaren 30erako Oiardo Kiroldegian.

Abenduak 30, larunbata

Mutilak:

-A multzoan: Usurbil K.E.; Tolosa CF; Indupime Basauri.
-B multzoan: Amenabar ZKE; Anaitasuna; Hernani ET.

Partidak:

09:00 Usurbil K.E.-Tolosa C.F.
10:00 Amenabar ZKE-Hernani ET.
11:00 Tolosa CF-Indupime Basauri.
12:00 Hernani ET-Anaitasuna.
13:00 Indupime Basauri-Usurbil K.E.
14:00 Anaitasuna-Amenabar
16:00 5. eta 6. postuak.
17:20 3. eta 4. postuak.
18:40 Finala.

Neskak:

-A multzoan: Usurbil K.E.; Tolosa CF; Indupime Basauri.
-B multzoan: Aiala ZKE; Anaitasuna; Hernani ET.

Partidak:

09:30 Usurbil K.E.-Tolosa CF.
10:30 Aiala ZKE-Hernani ET.
11:30 Tolosa CF-Indupime Basauri.
12:30 Hernani ET-Anaitasuna.
13:30 Indupime Basauri-Usurbil K.E.
14:30 Anaitasuna-Aiala ZKE.
16:40 5. eta 6. postuak.
18:00 3. eta 4. postuak.
19:20 Finala.
20:00 Sari banaketa.

Oharra: partidek 12 minutuko bi zati izango dituzte eta minutu bateko atsedena.
Antolatzailea: Usurbil K.E.



Larunbatean ekitaldia zuten Sutegin.

traien aurkezpenean Ixabel Agirresarobek.

Gipuzkoako birari ekiteko, Zumaiara oinez

Bidasoako Kontrabandisten ibilbidea osatu dute aurten. 2018an, Gipuzkoari bira eman asmo diote. Bira horretako lehen etapa, urtarrilaren 14rako finkatu du Andatza M.K.T.-k. Usurbildik Zumaiara oinez joateko gonbita luzatzen dute. Igande horretako goizeko 08:00etan abiatuko dira Oiardo Kiroldegi paretik. 29 kilometroko ibilbide horretan zehar egingo dute, norberak eraman beharko duen otordua. Itzulera trenez egingo dute. Go-goan izan, irteera hauetan parte hartzeko ezinbestekoa dela mendiko federatua eta aseguru txartela indarrean izatea. “Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web orrian aurkitzen da egin beharrekoa”, ohartarazten dute Andatza M.K.T.-tik.



Urtarrilaren 14an Usurbil Zumaia arteko bidea osatuko dute oinez.

Informazio gehiago:
andatza@hotmail.com
andatzamendizale.info

Hotzak Akabatzen probarako izen ematea

Andatza M.K.T.-ren baitako Iri-sasi BTT elkarteak urtarrilaren 28ko (09:00etan Mikel Laboa plazatik) antolaturiko kirol

proban izen emateko aukera izango da urtarrilaren 1etik 24ra, kirolprobak.com atarian. Hiru ibilbide izango dira aukeran; motza (28 km), erdi mailakoa (34 km) eta luzea (44 km).

Argibide gehiagorako:
irisasibtt@gmail.com
andatzamendizale.info

Bertsolarien aurretik, xake jokalaria BEC-en

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia ospatu bezperan, Barakaldoko BEC-en bertan ateratako irudia duzue ondokoa. “Aste-bukaera honetan BEC-en ospatu den Bizkaia Chess & Gazte topaketan Usurbildik Udarregi Ikastolako jokalaria joan dira. Xaken jolasteaz gain aktibitate asko egin dituzte”, berri eman digute xake taldekoek, NOAUA!ra helarazitako argazki honekin batera.



Bizkaia Chess & Gazte Topaketan Udarregiko jokalaria hauek hartu zuten parte.

Pagazpe, pala motzean Gipuzkoako txapeldun

Abenduaren 17an Zubietan jokatu ziren finaletan garai-le amaitu zuten usurbildarrek.

Emaitzak:

■ 3. Maila: Euskal Jolas (Badiola-Sanchez) 39.
Oiangu 2 (Otegi-Mendikoa) 40.

■ 2. Maila: Txost (Aizpuru-Irigoien) 40.
Pagazpe (J.Begiristain-M.Begiristain) 38.

■ 1. Maila: Oiangu I (Ibarguren-Andonegi) 38.
RS Pelota (Navarro-Vigeon) 40.



Sarituak, txapelketa amaieran.

Usurbil FTren Gabonetako

Topaketa

2007an jaiotako Futbol Eskolako Gabonetako Topaketa antolatu du Usurbil F.T.-k larunbat honetarako, abenduak 23, goizeko 09:30etan Haranen.

Taldeok parte hartuko dute:

Usurbil F.T., Orioko F.T., Billabona K.E., Beti Ona, Allerru, Mutriku, Baztan eta Urnieta klubek.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

RPS: 28/17

ETXEBIZITZA

Salgai

Atikoa salgai garajea eta trastelekuarekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisu eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdik 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

bat hartuko nuke. 615 758 476:

Alokairuan

Pisua edo gela alokatzen da Santuenean. Oso ondo dago. 667 912 307 / 626 428 463 / 607 668 603

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil

Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daitezke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49

zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m² karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari bat behar da, kartarekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 66118892.

18 urteko neska euskaldun herriar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsalden umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketak egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabilta. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauetz zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oportetean umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsesean.



Zorionak Arai,

urtero bezela Santomas egunarekin eta aurten oportekin batera zure 8. urtebetetzea iritsi zaigu. Ondo ondo pasa eta disfrutatu eguna.



Zorionak Izar!

5 urte dagoeneko prexioxa, ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Oso zorionsuak egiten gaituzu! Aita-txo, amatxo eta Amaiurren partez.



Zorionak

Naia!!! Abenduaren 29an 9 urte beteko dituzu eta danok ospatuko dugu. Mila milioi muxu etxekoan partez.)

Heriotzak

Santiago Trenado Pinto

84 urterekin hil zen abenduaren 12an Usurbilen



sean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketari lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketari lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldareren ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lan egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak

zaintzen. 602 871 835.

Etxe lan egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldari lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxe lan egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketari lanetan edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz

etxe lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, orduko lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketari lanak, tabernan arraskan aritze-ko... 688 642 835/ 697 887 581.

BESTELAKOAK

Klase partikularrik eskaintzen dira, akademikoak eta gitarakoak. Interesatuak deitu zerbaki honetara: 634 412 687 (Josu).

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Gitarra klaseak ematen dituen pertsona baten bila gaude. 657 795 378.

Irailaren 20an, goizeko 9:30ean Donostiara doan Usurbilgo autobus geltokian poltsa gorri batean galtza bakero batzuk utzi nituen. Norbaitek ikusi edo hartu badu deitu, 657 711 335 (Maite).

Irailaren 13an kaketua txiki bat (ninja) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxe-ko membrilloa salgai. Interesatu gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enorktxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikoko egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ihena Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK eskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 21	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 22	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Larunbata 23	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Igandea 24	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Astelehena 25	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteartea 26	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Asteazkena 27	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Abenduak 21 - abenduak 31

Osteguna 28	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Ostirala 29	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 30	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Igandea 31	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda abendua

22 ostirala

- Izotz pista Askatasuna plazan. 11:00-13:00 / 17:00-20:00.
- Gabonak Zubietako eskolan. 12:00 Gabon kantak senideekin Errebote plazan.
- Haur Eskolako gabon festa. 16:45etik aurrera.

23 larunbata

- Izotz pista Askatasuna plazan. 11:00-13:00 / 17:00-20:00.
- Gabonei eta Olentzerori ongi etorria Aginagan. 09:00 Eliza paretik abiatuta. 18:00 Olentzerori ongi etorria Aginagan.
- Got Talent Gaztelekuan. 16:00.

24 igandea

- Izotz pista Askatasuna plazan. 11:00-13:00 / 17:00-20:00.
- Mari Domingi eta Olentzerorekin kantuan. Ikus Gabonetako gehigarriko agendan.
- Olentzero Santuenea Elkartetik. 17:50.

“Manez eta kobreak”, ostiral honetan Sutegin kontzertuan

Nafartarrek antolatutako kontzertu berezia ostiral honetan, abenduaren 22rako 22:00etan Sutegin. “Manez eta kobreak” taldekoak datoz Usurbilgo kultur etxera. “Kalakan taldean kantatu ondoren, Thierry Biscaryk (Anhauze, Behe Nafarroa) bere talde berria aurkeztuko du. Manez eta kobreak, metalezko musika jotzaile hauek, kobreak jotzeaz gain kantariak ere badira. Euskal Herriko ehunka talde informal bezala, gogotik kantatzen dute”, aditzera eman dute antolatzaileek.

Parte hartzaileak:

Manez: Thierry Biscary: ahotsa, perkusioak, konposizioak eta moldaketak.
Kobreak: Ana Telletxea: ahotsa, esku-



22:00etan hasiko da kontzertua.

soinua, perkusioa. Fermín Garaikoetxea “Mintxo”: ahotsa, tronpeta, bonbardino. Vianney Desplantes: ahotsa, bonbardino. Bixente Etchegaray: ahotsa, tronpeta. Laura Etchegoyen: ahotsa, saxofoia. Sarrerak: egunean bertan 5 eurotan. Antolatzailea: Nafartarrak.

‘Pasaiaiko badia’ dokumentala Sutegin

1984ko martxoaren 22an Espainiako Poliziak Komando Autonomo Antikapitalistak lau kide hil zituen Pasaian, eta han gertatu zenari buruzko kontakizuna egin dute Oinatzak Produzioak taldeko kideek: Xabier Otamendik, Yuri Agirrek eta Erik Aznalek.

- Abenduak 28, osteguna. Sarrera doan.
- 19:30ean, Sutegiko auditorioan.



‘Pasaiaiko badia’ aurkeztu zuteneko argazkia.

Datozenak

Abenduaren 27an, Eriz Magoa Santuenean

Eriz Magoak urte asko daramatza kultur etxe, ikastetxe eta antzokietan umeak zein helduak gozarazten. Eri- zek, fantasia eta errealitatea elkar- tzen diren eta magia eta umorea bat datozen ikuskizuna eskaintzen ditu.

- Abenduak 27 asteazkena.
- 17:30ean, Santueneko ludoteka.
- Sarrera: doan.
- Antolatzailea: Santueneko Auzo Elkarte.

Kantu Taldea, ikasturte berriaren atarian

Ikasturte berria, hamargarrena abiatuko du Kantu Taldeak 2018a hastearekin batera. Urtarrilaren 8an izango da, bai, astelehenez. Udazkenaz geroztik entseguetarako hitzordu berria baitu Kantu Taldeak.

Agerialdeko musika gelan

Astelehenero biltzen dira, 18:00-19:00 artean, Udarregi Ikastolako Agerialdeko musika gelan.

ELORZA

O BRAK ETA
ER REFORMAK S. L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Inaki
Iturgintza

BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

600 024 825





Bizi kalitatea hobetuz

Zorionak eta urte berri on!

Lizarralde
ORTOPEDIA

Astelehenetik ostiralera: 09:15-13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbata: 10:30-13:00


ALOKAIRUAN:
gurpildun
aulkiak,
ohe artikulatuak

 Teknikari ortopeda kontsulta

 Arreta pertsonal eta espezializatua

 Online eta telefono bidezko aholkularitza

 Salmenta ondorengo zerbitzua

 Etxera banaketa

 Eskailera igogailuen instalazioa

 Komun eta etxebizitzaren egokitzapena

 Diru-laguntzen aholkularitza eta tramitazioan laguntza

 Produktu ortopedikoen salmenta eta aholkularitza

 Zapata eta ortesi gama zabala

Lizarralde Ortopedia
Kazkazuri plaza 1 - behea
20180 Oiartzun

Tel: 943 543 585 Mugikorra: 688 678 583
andoni@lizarraldeortopedia.eus
www.lizarraldeortopedia.eus



 **jostailu denda**
xirinbolo

Etxebeste Kalea, 15 943 37 75 96 Usurbil



Eider Rodriguez



Eñaut Elorrieta



Beatriz Zabalondo



Eneko Sagardoi



Miren Amuriza



Olatz Osa



Amelia Barquin



Kike Amonarriz



Zuriñe Hidalgo



Iñaki Gorizelaia

Geroa zugar: geure mundua kontatzeko

Izan **berria** laguna
Berria.eus/geroazugan



berria
#BERRIAK15